EHUko 1 kreditu ikasleentzat

# BERTSO SAIO SANITARIOA



| | |
|---|---|
| Non: | **Goiko Lastola Sagardotegia**<br>**Ereñozu auzoa 89, Hernani** |
| Noiz: | **apirilaren 12an, ostirala, 18:30ean** |
| Norentzat: | **osasun arloarekin erlazioa duen edonorentzat (zeladore, mediku, administrari, erizain…)** |
| Oinarriak: | **ikus atzeko aldea** |
| Izen-ematea: | **martxoaren 31 baino lehen**<br>**e-posta: HDO.ABIAN@osakidetza.net**<br>**irene.gil@osakidetza.net**<br>**tel. 943 00 73 56 (08:00-15:00)** |

*Donostia Unibertsitate Ospitaleko Komunikazio Unitatearen laguntzarekin*

euskaraz

OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEA

MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA FAKULTATEA FACULTAD DE MEDICINA Y ODONTOLOGÍA

DONOSTIAKO ERIZAINTZA ESKOLA
ESCUELA DE ENFERMERÍA DE SAN SEBASTIÁN
NURSING SCHOOL OF DONOSTIA
ZAINDU

Osakidetza
DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEA
HOSPITAL UNIVERSITARIO DONOSTIA

BERTSOLARIAK: Felix Zubia
Karlos Ibarguren

## OINARRIAK

1. Txapelketa taldeka egingo da. Talde bakoitzak hiru pertsona izango ditu.
2. Parte hartzaile osasun arloarekin erlazioa duen edonor izan daiteke (zeladore, mediku, administrari, erizain…). Aurten, saiakera berezia egingo dugu taldeak eta asmatu beharreko hitzak horretara moldatzeko.
3. Izena emateko azken eguna **MARTXOAREN 31** izango da.
4. Izena beti banaka emango da. Ikasleen kasuan ikasketa-maila eta ikastokia adieraziko dira. Kontakturako helbide elektroniko bat eta telefono bat beharrezkoak dira.
5. Taldeak zozketaz osatuko dira.
6. Ikusle bezala bertaratzeko aukera ere badago. Hala nahi izanez gero, izena ematerakoan jakinarazi beharko da.
7. Saioa hasi aurretik afariaren balioa, 35 € emango ditu pertsona bakoitzak.
8. Taldeek zenbaki bana izango dute, hots, 1. taldea 2. taldea, etab. Taldeak hala erabakiz gero, izena ere jar dakioke.
9. Txapelketa kanporaketa sistema bidez jokatuko da. Bertsolariek kanporaketa saio bakoitzean bertso-kopuru jakin bat kantatuko dute eta taldeek idatziz bertso bakoitzak aipatzen duen diagnostikoa edo hitza asmatu behar dute. Denak asmatu ezean taldea kaleratua izango da. Bertsoak ez dira inoiz bitan kantatuko.
10. Kanporaketen bidez bi talde pasako dira finalera.
11. Sailkatutako bi taldeek finala jokatuko dute. Horretarako, talde bakoitzak lau bertsori dagokien diagnostikoa edo hitza asmatu beharko du, bertsoan diagnostikoa asmatzeko nahiko datu egongo delarik. Asmatuz gero bi puntu lortuko dituzte, eta asmatu ezean beste taldeak izango du aukera errebote bidez puntu bat lortzeko. Oraingoan ere bertsoa behin bakarrik kantatuko da. Erantzuna TALDEKO BOZERAMALEAK (beti pertsona berak) emango du. Erantzun bakarra onartuko da taldeko.
12. Kanporaketatan zein finalean berdinketa emanez gero epaimahaiak erabakiko du nola hautsi berdinketa.
13. Finalera iristen diren bi taldeek saria jasoko dute.
14. Epaimahai bat izango da txapelketa gidatzeko.
15. Epaimahaiak honako oinarri hauek aldatzeko eskubidea du, txapelketan antolaketa-arazoak bideratzeko behar izanez gero.
16. Txapelketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar ezinbestean. Hala ere, beti egongo da kexatzeko eskubidea.

APUNTATZEKO: **HDO.ABIAN@osakidetza.net edo irene.gil@osakidetza.net**
**Tel. 943 007356**